

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko irailaren 15a. VIII. urtea. 2.273. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Xabier Zabala eta Haritz Romeo Euskal Herria Eguneko kartela eskuan dutela, Ibarren. A. IMAZ

Haritz Romeo eta Xabier Zabala EH Egunaren sustatzaileak

«Zazpi lurraldeekin senidetu nahi dugu»

Etzi, Ibarren egingo den Euskal Herria Eguneko bazkarirako txartelak salgai aurkitzen dira; Ibarako Danon Txokoa eta Atari tabernetan 06

Emakume pilotazaleek aurki hasiko dituzte pilota ikastaroak

Emakumea Pilotari proiektuak ikasturte berria hasiko du urrian, eta Tolosaldeko hainbat herritan paletan aritzeko aukera eskainiko du 05



Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendaria

«Latinoamerika eta Europako zinemaren topaleku izatea nahiko genuke»

Topic zentroak Zinemaldiarekin sinatu duen akordioari esker, 'Plazer ezezagunak' pelikula ikusteko aukera egongo da Tolosan 02-3

Final zortzirenekin itzuliko da Gpuntua larunbatean

Amaia Agirre bertsolari billabonatarra lehen postuaren bila joango da Andoaingo Bastero kulturguneko saiora, «ilusioz beteta» 04

VIII. Mendi Bizikleta Martxa eta V. Maratoi Erdia, Plazaolatik

Leitzaldea zeharkatzen duen natur bidean ehunka lagun elkartuko dira igandean 05



→ Laburrak**Urkizun auzo bazkaria
egingo dute hilaren 24an**

GIZARTEA › Tolosako Urkizun, hilaren 24ean, auzo bazkaria egingo dute. Txartelak salgai aurkitzen dira; helduek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek 15 euro. Lau urte dira bazkari hau egiten hasi zirenetik eta egun preziatua dute Urkizun. Interesatuak, txartelak 652 70 96 80 telefono zenbakira deituta erosi behar dituzte.

**SOS Haur Lapurtuak
elkartearen batzarra, etzi**

GIZARTEA › SOS Haur Lapurtuak elkarteak batzar «oso garrantzitsua» egingo du etzi, hilaren 17an, Tolosako Kultur Etxean. Bilera 10:30ean hasiko da eta Tolosako kaltetuentzat bakarrik izango da. Bertan, ondorengo gaiak aztertuko dira, besteak beste: kaltetuak Tolosako ospitaletan; falta diren datuak; historia eta izena emateko aukera eta sendagileak. Batzarra hasi aurretik gertutzea eskatzen da.

**Euskaltegian izena
emateko azken egunak**

EUSKARA › Aitzol udal euskaltegian izena emateko epea hilaren 16an, bihar, amaituko da. Euskara ikasi nahi duenak informazio gehiago www.tolosakoudala.net edo www.udaleuskaltegiak.net helbideetan jaso dezake. Horrez gain, 943651006 edo 943652343 telefono zenbakietara dei dezake.

**Uxue Apaolazaren 'Mea
Culpa' aztertuko dute**

LITERATURA › Galtzaundi Irakurle Taldeak Uxue Apaolazaren *Mea Culpa* liburua aztertuko du, gaur, Tolosako Kultur Etxean 19:30ean hasiko den batzarrean.

**Earen 25. urteurrena
ospatzera joateko deia**

POLITIKA › Eusko Alkartasuna alderdiaren 25. urteurrena hilaren 18an ospatuko dute Lizarran. Bertara joateko autobusa eta bazkarirako txartelak egongo dira eskura. Kontaktuan jarzkeko bi telefono zenbaki jarri dituzte: 626775648 (Angel) eta 607690403 (Mikel).

Jia Zhangkeren *Plazer ezezagunak* pelikulako irudia. HITZA

Zinemaldiko pelikula txinatar bat ikusteko aukera egongo da Topic zentroan

Jia Zhangkeren *'Plazer ezezagunak'* lana hilaren 20an eskainiko dute, dohainik, 21:45ean

Asier Imaz

Topic Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroa Donostiako Zinemaldiarekin akordio batetara iritsi da. Horren arabera, irailaren 16tik 24ra ospatuko den Zinemaldiaren pelikula bat Tolosan ikusteko aukera egongo da, dohainik gainera.

Plazer ezezagunak (*Unknown Pleasures*) luzemetraia hilaren 20an eskainiko dute Topic-en, 21:45ean. Jia Zhangke zuzendari txinatarren lana 2002. urtekoa da, eta 113 minutuko iraupena dauka.

Donostiako Zinemaldiarekin lorturiko akordioari etekina ate-

ratzeko, Topic-ek txinatar herriaren tradizioa ezagutzeko aukera eskainiko du. *Plazer ezezagunak* pelikularen ondoren, zuzendari berberaren *In Public* film laburra eskainiko dute.

Jia Zhangkeren lanek bat egingo dute txinatar itzal tradizionalen inguruko erakusketa berria-

rekin. Elkar hartuta aurkeztuko ditu arte lan guzti hauek Topic-ek hilaren 20an, asteartean.

Txinako itzal tradizionalen erakusketa Zinemaldiak irauten duen bitartean egongo da ikusgai, Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroaren leku esanguratsuenetan.

Zine Forumean 'Toro salvaje' ikusteko aukera egongo da

Leidor aretoan, larunbatean eta igandean, Harry Potter-en azken pelikula jarriko dute

A. Imaz

Leidorren Zine Foruma pelikula mitiko batekin etorriko da bihar-koan, *Toro Salvaje*-rekin hain zu-

zen ere, eta ohi bezala, jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.

Asteburuko zine programazioaren baitan, larunbatean, *Harry Potter y las reliquias de la muerte* ikusteko aukera egongo da, 19:30ean. 22:30ean, *La boda de mi mejor amiga* egongo da. Igandean, orduetgia aldatuko den arren, pelikula berdinak eskainiko dituzte; 17:00etan eta 19:30ean.

Astelehenean, 20:30ean, *La boda de mi mejor amiga* ikusteko aukera egongo da. Leidorko arduradunek azaldu dutenez, ikuslearen eguna izango da astelehena.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

LANA

■ **Lan bila.** Neska euskalduna etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Interesa duenak, dei dezala 678 88 97 91 telefono zenbakira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bide Ertzeanek bere azken lana aurkeztuko du, bihar

'Don Inorrez' diskoaren aurkezpen kontzertua 20:30ean izango da; sarrerak 10 eurotan jarri dituzte salgai

Erredakzioa

Bide Ertzean taldeak *Don Inorrez* diskoaren aurkezpena egingo du bihar, ostirala, 20:30ean, Tolosako Topic-en.

Sarrerak 10 eurotan jarri dituzte eta Topic-eko leihatilan edo www.topicitola.com helbidean aurkitzen dira salgai.

Bide Ertzeanek etengabe landu du bere soinua 1998an abian jarri zenetik egin dituen hamabi urteotan, eta hasierako diskoetan nagusi zen pop estilotik gaur egungo ukitu rockeroagoetara aldatu da. Halaxe ageri da *Don Inorrez* lan berrian. Don Inorrez Azpeitia aldean haurrak beldurtzeko deitzen den pertsonaia da.



Bide Ertzean taldeak bihar Topic-en joko du. HITZA

Jose Luis Rebordinos ◉ 59. Zinemaldiko zuzendaria

Bihar hasiko da 59. Donostiako Zinemaldia; Mikel Olaziregiren lekukoa hartu du aurten Jose Luis Rebordinosek jaialdiaren zuzendaritzan

«Jende guztiak Zinemaldiaz gozatzea da helburua»

Iñigo Terradillos Gaztelu

Bihar hasi eta hilaren 24ra arte alfonbra gorria jarriko du Donostiak. Bertatik, Glenn Close aurtengo Donostia Saria jasoko duen aktore estatubatuarra igaroko da, eta zinema nahiz beste alorretako izen ezagunak ere ikusi ahaliko dira. 59. Zinemaldiak film ugari estreinatuko ditu. Baita bere zuzendaria ere. Gaztelun bizi den Jose Luis Rebordinosek (Donostia, 1961) «herriar ororen gustuetara zuzendutako Zinemaldia» izatea du helburu.

Nolakoa da aurtengo Zinemaldia?

Eskaintza zabala izango duen Zinemaldia da, egitarau heteroegeneoduna. Jaialdiko ohiko atalei Zabaltegi berezi eta zabala gehitu zaio, gaueko saio bereziak, gaueko proiektio eta afariak, haurrentzako ekintzak, erakusketak... Askotariko ekitaldiak izango dira aukeran. Gazteentzako eskaintza berezia dago txarteletan, eta udalak langabetuentzako banatzen ditu filmetarako txartelak. Jende guztiak Zinemaldiaz gozatzea da helburua, norberak bere gustuko filma edo ekintza topatuz.

Lehen urtea duzu jaialdiko zuzendari bezala. Zertan nabarrituko da zure presentzia?

Orain zuzendaria naiz, baina azken 15 urteetan egin dut lan Zinemaldian, zuzendaritza taldean, eta azken 10 urteak Mikel Olaziregi zuzendari zela. Nire burua erabati ordezkatutik sentitu dut beti. Beraz, nik proposatuko dudana guztia orain arte egin dugunaren garapen bat izango da. Hori bai, zuzendari bakoitzak bere puntua jartzen dio. Agian, espainiar eta euskal zinema gehiago landu dugu. Latinoamerikako eta Europako zinemaren topaleku izatea nahiko genuke Zinemaldia. Bestalde, dibertitzea helburu duten ekimenak ere bultzatu ditugu.

Azken zuzendariaren, Mikel Olaziregiren, lanaz zeresango zenuke?

Zinemaldiak zorte handia izan du bere azken bi zuzendariekin, Mikel Olaziregirekin eta Diego Galanekin. Azken honek, irudimen handiko pertsona bera, hiri osoa Zinemaldiarekin liluratzea lortu zuen, ekimen herritarra eginez. Mikel, berriz, itzalean gehiago jardun duen zuzendaria izan da; oso zuzendari ona. Nazioartean Zinemaldiak duen presentzia lantzen esfortzu berezia egin du. Azken urteetan nabarmentzekoa da krisi handia pairatzen dugun arren, Zinemaldiak bere lekua mantendu duela, eta hori berari zor diogu nolabait.

Zein helburu du edo izan beharko luke Donostiako Zinemaldiak?

Zinemaldi bat topaleku bat da, kultur hitzordu bat. Zineak eztabaida eta ideiak sortu behar ditu, beraz, horretarako gune ere behar du izan, eta hori Donostiako ongi egiten duela iruditzen zait. Bestalde, jaialdiak negozio ere izan behar du. Inbertsio handia dago erakundeen eta babesleen aldetik, baina, aldi berean, diru iturri ere bada. Izan ere, egun horietan hotelak, tabernak, jateak... beteta daude, dendetan gehiago erosten da bisitari kopurua handitzen delako... Aldi berean, horrelako jaialdi bat zinema eta ikus-entzunezko industria-rentzat negozioa egiteko eta esperimentziak, ideiak eta proiektuak tartekatzeko lekua ere izan behar da. Nire ustez, Donostiak badu azken honetatik, baina, ez agian izan behar lukeena bezainbeste. Horretan egingo dugu lan, beraz, datozen urteetan. Zinema industriarentzat, bereziki Latinoamerikakoa eta Europakoa, Donostiako Zinemaldia leku garrantzitsua eta ezinbesteko izatea nahiko genuke.

Atzerrian nola ikusten dute Donostiako Zinemaldia?

Lehiaketa ia zera duten jaialdien barruan, Cannes-ekoa da garrantzitsuen, eta horien ondoren leudeke Venezia eta Berlingoa. Nire ustez hauen atzetik, baina oso hurbil gaude gu. Oso garrantzitsua da hori, izan ere, gure aurrekontua aipaturiko horietan txikiaren erdia da. Hor mantentzea meritu handiko kontua da.

Eta Donostian?

180.000 biztanle dituen hiri batean 150.000 ikusle izatera iristea ikaragarria da. Hiriak bizi egiten du Zinemaldia. Zentzu horretan,

«Donostia bezalako hiri batean 150.000 ikusle dituen jaialdia izatea ikaragarria da»

«Zinemaldiak euskal zinemaren erakusleho izan behar duela iruditzen zait»

bai udalak, Aldundiak, bai eta Jaurlaritzak ere erabateko babesa ematen diote jaialdiari, argi baitute ekimen kultural bezala funtsezkoa eta estrategikoa dela. Beraz, esperotako babesa jasotzen du.

Nola osatzen duzue Zinemaldiko eskaintza?

Modu askotara. Nazioarteko jaialdietan ikusten diren filmak daude, merkatuan ikusten diren filmak, lurralde jakin batera ere joaten gara filmak aukeratzera... Glenn Close aktoreak parte hartzen duen *Albert Nobbs* filmarekin, esaterako, Londresera joan ginen bereziki filma ikustera. Kasu honetan, gainera, aurtengo Donostia Saria berak jaso izana ere garrantzitsua izan da film hori aukeratzeko. Esan bezala, egitaraua aukeratzeko modu asko ditugu.

Nola hartu zuen Glenn Close aktore estatubatuarra aurtengo Donostia Saria jasoko zuela?

Guk sariarena adierazi genion, eta berak eskertu eta oso pozik sentitzen zela erantzun zigun. Agenda begiratu behar zuela, baina ahal zuen guztia egingo zuela Donostiara etortzeko. Ondoren, izango zela baieztatu zigun.

Datorren urterako ba al duzue izenik?

Hainbat ditugu buruan, baina baieztatzen duguten arte ez dugu esaten. Los Angelesko bidaia bat

baliatu genuen oso pertsonaia berezi batekin harremanetan jartzeko, eta beste hainbatekin ere hor gabiltza lanean.

Zer moduzko erantzuna izaten ari da salmentei dagokienez?

Iazkoen antzekoak. Urte honetan ez jaitea gustatuko litzaidake, izan ere, pasa den urtean 12.000 ikusle gutxiago izan ziren. Baina, zinemaldietako joera orokorra hori dela esan daiteke.

Euskal zinemak pisu handia al du Zinemaldian?

Euskal zinemak pisu handia eduki behar du bertan. Euskal zinemaren erakusleho izan behar du. Urte honetan zortea izan dugu, besteetako baino handiagoa izan baita ekoizpena. Gurea bezalako lurralde txiki batentzat zinemagintzak pisu eta kalitate handia du.

2011ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)	
Tel.: 948 510 327 - 608 928 626	
Donostiak 20 minututara	
Paradetaraino sardiea kobez	
Enkantea Udaleko Batzar Aretoan burutuko da.	
1go enkantea: irailaren 17an	Larunbata 19:00
2. enkantea: irailaren 24an	Larunbata 19:00



HITZA

Udako atsedeenaren ostean, bueltan dator bertsolaritzaren Gpuntua

Larunbatean 17:30ean Andoainen hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa; final zortzirenak izango dira

Eneritz Maiz

Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketak larunbateko saioarekin emango dio jarraipena lehen fasean egindakoari. Udako atsedeenaren ostean, indar berrituta iritsiko da Gpuntua.

Andoainen eta Azkoitian izango dira final zortzirenako lehen saioak. Larunbatean, Amaia Agirrerren txanda izango da Andoai-

↓ Final zortzirenak

IRAILAK 17, LARUNBATA

■ **Bertsolariak.** Amaia Agirre, Iñigo Manzisidor 'Mantxi', Ane Labaka, Ander Goigogana, Iñigo Izagirre eta Manu Goigogana.
■ **Andoain.** 17:30ean, Bastero kulturgunean.

nen. Adur Gorostidi abaltzisketarrak, Unai Muñoa berrobitarrak eta Beñat Iguaran billabonatarak, berriz, hilaren 25ean Lazkao izango dute saioa. Urriaren 8an, aldiz, Oihana Iguaranen txanda izango da Lasarte Orian. Kanpoan ikasten ari den arren,



Lehen faseko kanporaketa bat Alegian izan zen. HITZA

txapelketan parte hartuko du amasararak.

Saioetarako sarrera guztiak erosteko aukera izango da www.gpuntua.com eta www.ber-tsosarrerak.eu atarietan. Interne-

tez sarrerak erosten dituztenek izango dute lehentasuna, baina saioen aurretik tokian tokiko leihatiletan ere jarriko dira salgai. Gpuntua-Bonoak ere jarriko dituzte salgai.

Amaia Agirre • Bertsolaria

«Animoz eta ilusioz betetako lehen kanporaketara»

E. Maiz Amasa-Villabona

Amaia Agirre larunbatean sartuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Andoainen izango du zita, eta alboan, *Mantxi*, Ane Labaka, Ander Lizarralde, Manu Goigogana eta Iñigo Izagirre izango ditu.

Larunbatean hasiko da berriz txapelketa, eta zure txanda izango da. Nola sentitzen zara?

Egia esan animoz beteta nago, eta ilusioarekin joango naiz. Astea pixka bat lasaitzeko, eta badatorrela konfirmatzeko izaten ari da. Txapelketako lehenengo saioa da, eta txapelketaren sua piztu gabe dago eta termometroak martxan jarri gabe daude; bai epaileenak, bai entzuleenak eta baita bertsolarienak ere.

Lehen saioa izatearekin presiorik sentitzen duzu?

Seguro aski inoiz sentitu dudana presiorik txikiena sentitzen dut aurtan.

Zer dela eta?

Urte batzuk badaramatzagu mundu honetan. Aurreko Gipuzkoako Txapelketan, ate-atetan bederatzigarren geratu nintzen. Euskal Herriko Txapelketan, ez nuen nire egunik onena izan, eta hor ere, hurrengo faserako puntu erdira geratu nintzen. Batean, finalerako, eta, bestean, hurrengo faserako puntu erdira geratzeak badakit zer suposatzen duen, eta zer ekartzen duen. Hori gainetik kendu, eta aurrera begira jarri naiz. Pasa egin nahi izaten da, baina ez dago gauza errazik.

Mantxieta zu, lehen fasetik datozen zain egon zarete. Nola ikusten duzu egokitu zaizun boskotea?

Gustatu zait tokatu zaidan boskotea. Dudarik ez dut egiten, lekua ziurtatuta geneukanok atzetik bultzaka etorriko direnekin lehian aritu beharko dugula.

Txapelketa dela eta prestaketa lan handia egin duzu udan?

Aurtan inoiz baino garbiago neu-



E. MAIZ

kan, nahiz eta txapelketako lehenengo saioa tokatu, uda oportetarako dela. Nire burua estutu behar banuen prestatzeko estutu behar nuela. Udan, batean eta bestean ibiltzeko gogoia izaten dugunez, egin ditudan saioekin konformatu naiz. Ez dut aparteko prestaketarik egin, behin bakarrik elkartu naiz. Udako erritmorekin fidatu naiz. Plaza batzuk

egin ditut, eta gustura nabil. Ez dakit nire mailarik onenean nabilen edo ez, baina gustura sentitzen naiz. Plazetan egiten dudana egingo banu badakit ez daukadala arazorik, baina ez dakit norberak jartzen dion presio horri aurre egiteko gai izango naizen. Autokontrolak izorratzen nau, eta aurtan espero dut horrelako susto txarrik ez ematea nik neure buruari.

Nola ikusi duzu txapelketako lehen fasea?

Egia esan, bertso saioak nituelako udaberriko bertso saioetara joateko aukera handi-handirik ez nuen izan. Zumarragakora joateko aukera izan nuen, nire bi ikasleak ikustera.

Berezia izango da ikasle batekin saio batean lehiatzea ezta?

Bai, pentsatzen nuen lau ikasleetatik bakarren batekin egokituko zitzaidala. Guztiek egin dute aurrera. Ane Labaka da bat, eta Andoainen elkarrekin izango gara. Ilusioa egiten digu bai niri eta baita berari ere. Bi belaunaldi ezberdin gara, eta inoiz ez gara txapelketa batean elkarrekin egokitu. Ea elkarrekin ofizio bat egiten dugun, eta aho zapore onarekin, eta elkarri irribarre bat eginda eseritzen garen! Ume-umetatik hartu nuen, eta gainera Lasartetik espresuki etortzen zen Asteasuko nire bertso eskolara. Lagun handia dut, eta oso-oso ondo dabil gainera.

Herriatik gertu abestuko duzu.

Batzuk bere herrian ez dute abestu nahi izaten. Andoainen lehenengo geratzen denak, Villabona abestuko du hurrengoan, eta niri ilusioa egingo lidake. Lehenengo geratzeak Villabonakantatzeko saria dakar, eta ni horren bila joango naiz. Hasierako agurrik hori garbi uzten ahaleginduko naiz.

Lourdesera jubilatuentzako bidaia antolatu dute hilaren 27rako

Alkiza, Larraul, Zizurkil eta Adunako jubilatuei zuzendua dago; izena emateko azken eguna hilaren 19a da

E. Maiz

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, Lourdesera irteera antolatu du jubilatuentzat. Hilaren 27an, asteartean, izango da.

Izena emateko epea hilaren 19an, astelehenean, bukatzen da. Interesatuak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoko 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Izena ematen duenak 18 euro ordaindu beharko ditu. Honako menua izango da bazkaltzeko: fi-deo-zopa, zizka-mizkak, haragia barazkiekin eta, bukatzeko, pastela. Edaria eta kafea ere prezioaren barruan daude. Autobusaren ordu hauek pasako da herrietatik: Larraulen, 07:15ean; Alkizan, 07:30ean; Zizurkilen, 07:45ean; eta Adunan, 08:00etan.

Azaroan egingo duten kultur astea antolatuko bilera izango da

Astelehenean, hilaren 19an, 18:00etan izango da bilera; kultur batzordeak herritar guztiak gonbidatu ditu

E. Maiz Aduna

Urtero bezala, Adunako Udalak azaroan izaten den kultur astea antolatuko bilera deitu du. Herritar guztie dei egiten diete, prestaketa lanetan laguntzera agertu daitezen.

Antolaketa lanetan hasteko, hilaren 19an, astelehenean, 18:00etan elkartuko dira kultur aretoan. Azaroaren hirugarren astean, hau da, 14tik 20ra antolatu nahi dute aurtengo kultur astea. Hori dela eta, kultur batzordeak, herritar guztiei, hau da, gazte, heldu, emakume nahiz gizon izan, parte hartzera animatu nahi ditu. Batzordeko kideen ustez, herritar guztiek parte hartuz lortuko da kultur aste antzita eta denen gustukoa izatea.

Calidad Peugeot

Peugeot Sarean,
prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zerbitzu profesionalizatua / Doako azterketa 29 puntutan / Pneumatikoetan bermea
Prezioa: Eskatu aurrekontua eta lasaitasunak gehiago ez duela balio ikusiko duzu.

Eskaintzak ondorengo markentzat balio du:

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

FLEXICREDITO
24 HILABETETAN ORDAINTEKO AUKERA

PEUGEOT

Korrikan eta bizikletan Plazaolan zehar, natur bideen eguna ospatzeko

Igande honetan, VIII. Mendi Bizikleta Martxa eta V. Maratoi Erdia antolatu ditu Plazaola Partzuergoak

Imanol Garcia Leitza

Plazaolako natur bideen ohikoa den baino jende gehiago izango da igande honetan. Natur bideen Europako Egunarekin bat eginik, VIII. Mendi Bizikleta Martxa eta V. Maratoi Erdia antolatu ditu Plazaola Partzuergoak egun horretarako. Nerea Aldaz Partzuergoko kudeatzaileak azaldu duenez, proba horien helburua «natur bideen aldarrikapena, kirola egitea eta naturaz gozatzea» da.

Lasterketari dagokionez,

09:30ean hasiko dute ibilbidea korrikalarietarako Urtotik, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugatik. 21 kilometro egingo dituzte Lekunberriraino. Izena emateko epea atzo bukatu zen eta eguerdira arte 145 lagunek eman zuten izena. Autobus bat izango dute 08:00etan Lekunberritik Urtoraino eramateko.

Bizikletan aritu nahi dutenek hiru aukera dituzte. Luzeena, 40 kilometrokoa, Andoaindik Lekunberrira izango da. 10:00etan hasiko da proba eta 09:00etarako abiatuko dira Lekunberritik autobusa eta kamioia, txirrindulariak eta bizikletak garraiatzeko. Festa amaitzerakoan, 14:00ak aldera, behar dutenentzat autobusa eta kamioia abiatuko dira Lekunberritik Andoainera.

Bizikleta martxa ertaina, 15 ki-



Orain bi urte egin zuten bizikleta martxaren une bat. HITZA

lometrokoa, Leitzatik Lekunberrira izango da, eta 11:30ean hasiko da. Probarik motzena, lau kilometrokoa, Lekunberrin hasi, Mugi-joan, eta berriro

Lekunberrira itzuliko da. 12:30ean abiatuko da martxa eta bereziki haurrei zuzendutakoa da.

Txirrindulariek aurrez izena emateko aukera zuten atzo arte,

eta 110 lagunek egin dute hori dagoeneko. Egunean bertan ere aukera izango da horretarako. 15 euro ordaindu beharko dituzte martxa luzea bada, 9 euro ertainerako eta 3 euro motza eginez gero. Izen-emateak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: aseguria, garraioak, anoa gunekak, luntxa eta zozketak.

Uitziko tunela

Lasterketa proba eta mendi bizikletako martxak ezin izan zituzten egin iaz, Uitziko tunelean egiten ari ziren lanak ez zituztelako bukatu. Behin tuneleko obrak amaituta, ibilbideko luzeena 2,7 kilometroekin, bertatik igaro ahal dira parte-hartzaileak, orain guztiz argiztatuta baitago. Beste hainbat tunel daude ibilbidean, eta iganderako horietako bat ere, Leitza inguruan, argiztatuko dute.

Nerea Aldazek azaldu duenez, Uitziko tunela uneoro argiarekin dagoenetik, «jende gehiago interesatu da Plazaolako natur bideaz, eta gero eta erabiltzaile gehiago daude».

Emakumea Pilotarik ikasturte berria hasiko du aurki

Eskualdeko hainbat herritan ikastaroak egiteko aukera izango dute interesa duten pilotazaleek

I. Garcia

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2004an abian jarri zuen Emakumea Pilotari proiektua. Aurten ere Tolosaldeko hainbat herritar iritsiko da proiektuaren eskaintza, eta ikasturtea urrian hasiko da. Hiru atal ditu egitasmoak: eskola kirola, partaidetza edo aisialdiko kirola eta kirol federatua.

Eskola kirolaren barnean, 10-16 urte bitarteko neskentzat paleta eskolak jarri nahi dira abian. Aurreko urteetan ere izan dira Irura, Bidania, Tolosa eta Ibarra, adibidez. Bertan, astean entrenamendu bat egiteko aukera es-



Zenbait pilotari, Emakumea Pilotari Egunean. HITZA

kaintzen zaie pilotariei, ahal den heinean paleta eta pilota norbere ezaugarri eta adinera egokituz, eta Gipuzkoako eskolarteko paleta txapelketan ere parte hartu ohi dute. Ikasturtea urritik ekainera luzatuko da.

Aisialdiko paleta ikastaroak dagokienez, urritik ekainera, astean behingo maiztasunarekin, ordu eta erdiko paleta saioak

egingo dituzte bertaratzen direnek, tenisako pilotarekin eta paleta arinekin. Ikasturtearen amaieran, gainera, ohitura bihurtu den lez, azken festa batean Gipuzkoako herri ezberdinetan ikastaroa egiten ari diren emakumeekin bilduko dira, Emakumea Pilotari egunean. Aurreko urteetan 80 inguru elkartu ziren eta egun pasa ederra egin zuten Irurako frontoi-

↓ Ikastaroak

AISIALDIKO PALETA

Izen-ematea irailaren 26a arte da. Kostua: 115 euro.

■ **Zizurkil.** Udal pilotalekuan, asteartean, 19:30etik 21:00etara. Ikasturtearen hasiera urriaren 4ean.

■ **Ibarra.** Kiroldegiko pilotalekuan, astelehenean, 19:00etik 20:30etara. Ikasturtearen hasiera urriaren 3ean.

■ **Tolosa.** Beotibarren, asteartean, 09:00etik 10:30era. Ikasturtearen hasiera urriaren 4ean.

toian. Bertan jokatzeko Emakumezkoen Paletako Gipuzkoako Txapelketa Herrikoien azken fasea.

Kirol federatuari dagokionez, eskualdeko herri bat baino gehiagotan ikusi ahal izango dira nesken gomazko paleta partidak hasi

■ **Amasa.** Ostegunetan, 17:00etik 18:00etara edo 17:00etik 18:30era. Ikasturtearen hasiera urriaren 6ean.

■ **Villabona.** Ostegunetan, 19:30etik 20:30era edo 19:30etik 21:00etara. Ikasturtearen hasiera urriaren 6ean.

ESKOLA KIROLA

■ **Bidania.** Udal pilotalekuan, astelehenean, 17:30etik 18:30era. Ikasturtearen hasiera urriaren 3ean. Kostua: 95 euro.

berri den denboraldian, bai ezker horman eta baita trinketan ere.

Jardueretan izena eman nahi dutenek Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan, 943 47 143 edo 655 71 94 92 zenbakietan, egin dezakete. Ibarra kiroldegian dauden esku orriak ere erabili daitezke.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun
urriaren 31 baino lehen
eta jaso
artxai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.

Haritz Romeo eta Xabier Zabala ◉ EH Egunaren sustatzaileak

Ibarra eta Lizarraren arteko senidetze eguna larunbatean izango da Ibarrran. Aurten bizkaitarrak ere izango dira topaketan.

«Aurten algortarrak gonbidatu ditugu senidetze egunera»

Asier Imaz Ibarra

III. Euskal Herria Egunari azken ukituak emateko elkartu dira Haritz Romeo (Lizarrar, 1984) eta Xabier Zabala (Oizartzun, 1975), beste hainbat herritarrekin batera, Ibarrran. Larunbaterako dena prest dagoela dioten arren, Zabalak etxeko lanekin bidali du Romeo Lizarrara.

Zer da Ibarrran larunbatean ospatuko den Euskal Herria Eguna?

Xabier Zabala: Herrien arteko senidetzea.

Haritz Romeo: Ekimen honekin, pixkanaka-pixkanaka, zazpi herrialde elkartu nahi ditugu lurraldetasuna bultzatzu.

Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Lehen duela bi izan zen; eta orduan ere Lizarratik Ibarrra etorri zirenen.

H.R.: Hori da. Orduan hasi zen historia. Aurrez, ordea, Ibarrrako Bai Euskal Herriari ekimeneko kideak mugimenduan hasi ziren, Lizarrakoekin harremanetan jarri. Ordutik hona, lizartar asko ibartarrekin senideturik gaude, eta elkarrekin proiektua aurrera eramateko gogo guztiarekin.

Ibartarren gonbidapena jaso ondoren, nola hasi zirenen lanean Lizarran?

H.R.: Lehendabizikoa lana Ibarra mapan kokatzea izan zen. Senidetzearen helburua hori izan da, denok euskal herritarrek garelako aldarrikatzea, izan ere, guztiok gara anai-arrebak. Ondoren, pix-

kanaka-pixkanaka herriak eta herritarrek ezagutzen hasi ginen. Lehen urtean Ibarrran ospatu genuen Euskal Herria Eguna, eta iaz Lizarran. Benetan ekimen polita da.

Hirugarren topaketa honetarako, zein lanketa egin duzue Lizarran?

H.R.: Zabalpen bat eman da jendartean; jadanik lizartar askok eta askok ezagutzen dute ibartarrekin daukagun harremana. Azken egun hauetan, jendea animatzea da gure lanketa.

Euskal Herria Eguna aldarrikapen egun bat da, baina baita jai egun bat ere.

X.Z.: Euskal herritarrok ohituak gaude festa baten ingurura biltzen, eta denak azkenean festa batean bukatzen dugu. Larunbatean, egun guztiko festa egongo da, baina parranda bukaerarako utziko dugu. Eguna elkar ezagutzeko eta elkarrekin lasai egoteko aprobetxatu nahi dugu.

Kultur adierazpenen topaketa ere izan ohi da Euskal Herria Eguna, ezta?

H.R.: Bigarren edizioa, iaz, Lizarran egin zen. Bertara joan ziren ibartarrek gure herrian egiten diren hainbat kultur adierazpen ezagutzeko aukera izan zuten. Aurten, errealitate hori ekarri nahi dugu Ibarrra, joan ez zirenek hango kultura ezagutu dezaten. Adibidez, Inauterietako pertsonaia propioa, ikazkinak, dantzariak, zantzarriak...

Duela bi urte autobusez etorri zire-



A. IMAZ

ten Ibarrra. Plazara iristean, haurrak, gazteak nahiz helduak jaitsi zirenen.

H.R.: Ospakizun egun bat da, esan bezala, eta jende guztiari dago irekia. Egitaraua begiratzen baldin baduzu, argi ikusten da adin guztietako herritarrei aukera zabala eta anitza eskaintzen zaiela. Alde batetik, haurrentzat egun guztiko txokoa egongo da, eta bestetik, hainbat ekitaldi antolatuta dira gazteentzat eta helduentzat.

Lizartarrok zer aurkitzea espero duzue Ibarrran?

H.R.: Lehenik eta behin, anai-arreba moduan ibiltzea. Askok jadanik badugu elkarrekiko konfiantza, eta ez dutenek, saltsa hori aurkitzea nahiko genuke.

Aurten Algortako herritarrek gonbidatu dituzue. Hurrengo urratsa al da hori?

X.Z.: Apustua zazpi lurraldeetako herriak senidetzea da, eta aurten bizkaitarrekin hasi gara lanean. Ibarrra egun hau ezagutu dezaten gonbidatu ditugu, eta ikusiko da hortik zer ateratzen den.

Herri bazkarirako txartelak erosteko aukera dago oraindik

A. Imaz Ibarra

↓ Egitaraua

III. Euskal Herria Eguneako bazkaria herriko plazan egingo dute 14:00etan; eguraldi txarra egiten badu, aldiz, Emeterio Arrese parkeko frontoian. Bazkarirako txartelek 12 euro balio dute, haurrenak 6, eta Atari edo Danon Txokoa tabernetan eros daitezke.

Antolatzaile nahiz sustatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte egun guztiko jaira, baita herrien arteko bazkarira ere.

Era berean, gozatzeko aukera egun guztian zehar egongo dela azaldu dute, eta baita, horrez gain, haurrek egun guztian zehar euren jolas-txokoa edukiko dutela aipatu dutela ere.

HILAK 17, LARUNBATA

- **09:45ean.** Harrera Ibarra sarreran. Ondoren, kalejira.
- **11:00etan.** Hamaiketako Araneko iturrian.
- **12:00.** Herrien arteko ginkana.
- **13:00etan.** Ekitaldia.
- **14:00etan.** Bazkaria.
- **16:00etan.** Lip-duba. Ondoren, kalejira poteoa Elektrotxarangarekin.
- **21:00.** Lip-dubaren estreinaldia.
- **22:00.** Kontzertuak: Dolce Tangana eta Bide Bakarra.



XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

1. Saria


Bakioko Basarte landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

2. Saria

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

3. Saria

Astelena jatetxean bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke thargazkiak@hitza.info helbidera

Bidalizure argazkiak irailaren 23a bitarte!

Garagardo Festa bandaren doinuekin hasiko da

Gaur hasi eta igandera bitarte, 23 garagardo mota dastatzeko aukera izango da Zerkausion

I. Urkizu

Tolosako Musika Bandaren emandak emango dio hasiera gaur, Tolosako XIII. Garagardo Festari. Irekiera ofiziala 18:00etan izango da, eta 20:30ak inguruan hasiko da kontzertua.

Urteroko moduan, ordutegia arratsaldetik gauerdia artekoa izango da; horrela beraz, bihar hasi eta igandera bitarte, 18:00etatik 00:00etara izango da askotarikoz garagardoak dastatzeko aukera, Zerkausion.

Guztira 23 garagardo izango dira aukeran. Betiko moduan, batzuk arruntak izango dira eta 2,5 euroko prezioa izango dute. Garagardo bereziek, berriz, 3,5 euroko

salneurria izango dute. Ohiko moduan, pitxarrak nahiz garagardoentzako txartelak Zerkausion alboan jarriko duten postuan erosi beharko dira.

Edariarekin batera, sabela betetzeko aukera ere izango da. Besteak beste, Bratwurst eta Frankfurter saltxitzak, burrunzia, txerri ukondoa eta postreak afaldu ahal izango dituzte 1.200 lagunek.

Kirol taldeentzat bultzada

Garagardo festa herriko hainbat kirol talderentzat finantziazio iturria izaten da.

Tolosako Udalaren laguntzarekin antolatuntzaz arduratzeaz gain, eurek prestatzen dute Zerkausiko jantokia. Gutxi gorabehera, 200 lagun aritzen dira lanean garagardo festak irauten duen lau egunetan. Horrela beraz, Tolosaldea IKT, Tolosa C.F. nesken txirindulari taldea, Judo Club Tolosa eta Igarondo Urpekoak kirol taldeetako kideak ariko dira XIII. Garagardo Festan lanean.



Saltxitzak, ukondoa eta burrunzia izango dira afaltzeko. HITZA



Hodei Truk abesbatzako kideek eta ohiek osatzen dute taldea. HITZA

Tolosako Hodei abesbatzak Alemaniako Eurotreff jaialdian parte hartu du

Larunbatean kontzertua eskainiko dute Eduardo Mokoroa musika eskolan, 19:30etik aurrera

Itzea Urkizu

Alemaniako Wolfenbüttel hirian izan da, David Azurzak zuzentzen duen Hodei abesbatza. Duela urte bete inguru sortutako abesbatza da, iazko Eguberrietan egin baitzuten aurkezpen kontzertua. 17 urtetik 25 urtera bitarteko neska gazteak biltzen dira kantatzeko, eta guztiak Hodei Truk-eko kantariak edo kantari ohia dira.

Hannover-etik oso gertu dagoen Behe Saxoniako hiri honetan egin duten lau eguneko egonaldian, Festival Eurotreff 2011 jaialdian parte hartu dute. Hodei abesbatzak parte-hartze eskaera bidali zuen Gazte Abesbatzen Alemaniako Federazioak antola-

turiko jaialdi honetara, eta beste hainbat abesbatzaren artean aukeratua izan zen talde tolosarra.

Jaialdiko irekiera ekitaldian, 18 parte-hartzaileetako bakoitzak obra bat interpretatu behar izan zuen. Hodei abesbatzak David Azurza zuzendariaren *Tirikitrauki* abestu zuen, eta arrakasta handia lortu zuten.

Elkarlana beste abesbatzekin

Jaialdiko egitarauaren barruan, Hodei abesbatzako kideak Varnako (Bulgaria) abesbatza batekin elkarlanean aritu ziren.

Alexander Burda zuzendari alemaniar entzutetsuaren gidaritzapean, tailer musikalkak egin zituzten, inguruko eliza nahiz eskoletan kontzertuak eskainiz. Tailer hauetan landurikoa jaialdiko itxiera ekitaldian jarri zuten praktikan; Bulgariako eta Tolosako neskek zenbait lan eskaini zituzten Alexander Burdaren zuzendaritzapean. Euren ahotsei lagunduz, berriz, Bielorrusiako

Molodchensko-ko Balalaika orkestra aritu zen.

Tolosako abesbatzako kideek azaldu dutenez, «esperientzia oso aberasgarria izan da, bai alde musikaletik, baita giza harremanen aldetik ere».

Larunbatean kontzertua

Datorren larunbatean, hilak 17, Hodei abesbatzak kontzertua eskainiko du Eduardo Mokoroa musika eskolako areto nagusian. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta musikariak izango dituzte alboan. Alde batetik, Aitor Iraola ariko da pianoan, eta klarinetearekin, berriz, Luis San Sebastian.

Bestalde, Hodei Truk abesbatza lanean hastear da berriro ere. 2012. urtean, gainera, taldeak 25 urte beteko ditu, eta ekimen bereziak antolatuko dituzte. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik hasi, eta Batxilergo mailara bitarteko gazte guztiak izena eman dezakete 649 70 12 51 telefono zenbakira deituta.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



KENIA ETA KROAZIATIK EUSKAL HERRIRA

Tolosako Carmen Esnaola eta Altzoko Loli Arandia Kenian izan dira uda honetan, eta irudi bana bidali dute lehiaketan parte hartzeko. Argazkiak Masai-Maran aterata daude, eta emakume alargunen jantzi koloretsuak ikusi daitezke. Nere Karrera aldiz, Kroazian izan da eta Split-en ateratako argazkia aukeratu du: «Itasoko marea biziak

direla eta bide hau azkar batean zeharkatu behar izan genuen, baina bertatik alde egin aurretik momentu zoragarri honetaz disfrutatu genuen». Azken irudia Iñigo Gabarain tolosarrarena da: «Uztalean ateratako argazkia hau Nafarroako Kakueta mendikoa da. Manta-gorriak bildu ziren gailurrean, harri baten azpian». CE-LA-NK-16.

Agurrak



Zorionak!

Anizeto Sarasola (Anoeta).
Gaur 87 urte. Zorionak eta ondo pasa etxekoen eta Migelen partetik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Alliri auzoko hilaren 24ko bazkarirako txartelak Alliri tabernan eskuratu daitezke hila- laren 18a arte. Helduek 15 urte ordaindu behar dute, eta haurrek 6 euro.
- **Ibarra.** Festetako balantzea egiteko bilera egingo dute gaur, 19:00etan udaletxean.
- **Ibarra.** Hilaren 17ko Euskal Herria Eguneako bazkarirako txartelak Danon Txokoa eta Atari tabernetan eskuratu daitezke. Helduen txartelak 12 euro balio du, eta haurrenak 6 euro.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- nen eta iritzien erantzukizunik.



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Tolosa, IRAILAK 15, 16, 17 eta 18 2011
ordutegia: 18:00 - 24:00

TOLOSA
943 670 640

VILLABONA
943 694 873